

Betidanik eta betirako

Telmo Irureta Uria



Zumalako Udala

*enskar
txanpu*

Betidanik eta betirako

Telmo Irureta Uria

Julene Azpeitia 28. ipuin lehiaketa

2015

Zumaiako onenaren saria

2015eko abenduan digitalizatutako ipuina.

© Telmo Irureta Uria (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Kokoteraino nengoen anaiaren burugogorkeriekin. Gurasoak Estatu Batuetara joan zirenetik gehiegizko babes jasanezin batekin itotzen ninduen gau eta egun. Aitak ni ondo zaintzeko esan zion, berak berdin egingo zuela amarekin. Baina amak badu nik sekula izan ez dudan abantaila bat: bere onetik ateratzen duen edonor pikutara bidaltzeko aukera. Minbiziak ez dio, oraindik behintzat, besteekiko menpekotasunik ekarri. Niri nire mugikortasun-faltak bai. Etxekoei lotuta nauka. Eta etxean beste inor ez zegoenez, ez zitzaidan Ikerrekin haserretzea komeni. Kokoteraino nengoen eta izebari kontatu nion goiz euritsu bezain triste batean, posta elektronikoz. Izeba Gurutze. Bere emaila izan zen iluntasun hartan linternatxoa. Lainorik grisenak ere txuriagotu zituen. Hala zioen:

—Te adopto, ¿quieres?

Hiru hitz. Hiru bakarrik. Labur idazten du, baina beti marrazten dit irria ahoan. Mezu bakoitzaren atzean "hemen nago" bat dago. Mezu bakoitzarekin birtualki besarkatzen nau.

—Sí, quiero.

Eta horrela libratu nintzen Ikerrez. Horrela Iker nitaz. Izebarekin egin nuen ihes Julenen kotxean. Bigarren eskuko Opel Corsa zikin batean. Ez nuen uste hain ongi kabituko ginenik. Gurpil-aulkia, maleta, telebista altuxeago jartzeko lkean erosi berri zuten mahaia eta gu. Gurutze eta ni. Julen ez zen nire bila etorri. Ez kabitzen ez zelako, ezer ez zekielako baizik. "Sorpresa izango da. Ilusio handia egingo dio, ikusiko duzu". Bai, ikusi nuen, baina ez zion asko iraun pozak lehengusuari.

—Manu! Nolatan zu hemen!?

—Izebak adoptatu egin nau.

—Gurekin pasako duzu asteburua?

—Oraingoan gelditzeko etorri naiz.

—Gelditzeko?

—Denboralditxo bat. Gurasoak itzuli arte.

Ilusia amorrutik bilakatu zitzaion segundo gutxitan. “Ama indarberritu arte” gehitu zuen izebak, “laster bueltatuko dira, baina atsedena beharko du”. Lehengusutzat nuen Julen, odolekoa ez zen arren. Odolekoa ez zen arren, ederki ezagutzen nuen. Banekien aurpegi hura amorrutaren isla zela. Ez, ordea, zergatik zegoen amorratuta. Edo bai, eta ez nuen onartu nahi.

Juleni ez zion graziarik egin Gurutzek niri beren etxeko atea hain erraz zabaldu izanak. Batez ere ate hori zabaltzearekin batera zabaldu zirelako Julenenak. Logelakoan “Keep out” jartzen zuen kartel bat zegoen. Armairukoak posterretako neska erdi biluztuek apaintzen zituzten.

Zailak suertatu ziren lehen egunak. Muturtuta nuen txikitako laguna eta ni ez nengoen oso eroso. Izebari pena eman zion.

—Sar naiteke?

Bost axola emakume honi “Keep out”-a. Erantzuteko denborarik eman gabe sartu zen. Eskuetan argazki-album bat zekarren. Guk hasieran argazkiak ikusteko gogo handirik ez genuen, baina azkenean gustura egon ginen. Atzean geratu ziren garaiak oroitzuz. Iragina berpiztuz. Hautzarroan murgilduta. Guztia Gurutzeren plan bat izan zitekeela pentsatuta. Julenen begiradak argi zioen bera ere konturatu zela.

Funtzionatu zuen izebaren planak. Lau urte genituen Ricardorekin ezkondu zenean eta ordutik da Julen familiakoa. Lehengusu eta lagun niretzat.

Harreman polit horri ezin usteltzen utzi. Nolakoak ginen eta elkar zenbat maite genuen gogoratzeak desagerrarazi zituen gure artean zeuden harresiak.

Gau hartan azken urteetan isilpean gordetakoak kontatu genizkion batak besteari. Isilpean? Sekretuak ziren? Ez, nik inori inporta ez zitzaizkiolakoan nengoelako gorde nituen niretzat. Juleni bai, Juleni inporta zitzaizkion, baina Bartzelonan egin zituen ikasketak eta distantziak zaildu egiten du zenbait konturen kanporatzea.

—Zenbat mutilekin oheratu zara?

Ez nuen halakorik espero. Ez dit inoiz inork horrela hitz egin, eta momentuan ausartegia, lotsagabea, iruditu zitzaidan arren, eskertu nuen jarrera hura. Normala da lagunaren artean *ligeei* buruz aritzea, baina ez oso ohikoa gurpila-aulkia sexurako oztopo ez dela dakien jendea aurkitzea. “4,5” esan nion. “Koma 5 zergatik? Batek erdizka utzi zintuelako?”. Eta nire umore beltza ere ausartegia ote zen pentsatu gabe bizitu nuen elkarrizketa: “Hankak falta zitzaizkiolako”. Barre egin zuen. Nik ez nuen beste esatekorik horren inguruan, baina Juleni kuriositatea piztu zion gizon-zati hark. “Guapoa al zen?”. Ez. “Jatorra?”. Txotxolo xamarra. “Zerbait izango zuen. Zerk erakarri zintuen?”. Ezerk. “Eta berarekin oheratu zinen?”. Bai. Oso bakarrik sentitzen nintzen.

Julenek ezin uler zezakeen erakartzen ez zaituen norbaitekin oheratzearena. Hori goserik gabe jatea omen da. Izozkia nahi eta natillekin konformatzea nire iritziz. “Natillak? Mesedez! Ze izango da hurrena?! Arroz-esnea?”. Ze arroz-esne!? Neskak. Ea neska batekin *enrollatuko* nintzatekeen galdetu zidan. “Ez. Beno, ez dakit”. Bisexualitatea aipatu zuen orduan. Baina nik ez dut bisexualitatean sinesten eta horrek harritu zuen gehien. “Zergatik diozu ba ez dakizula?”. Isilune dramatiko baten ostean bota nion erantzuna: “Goxotasun pixka bat eskaintzen didan edonoren besoetan erortzen naizelako”. Dramatismoz kargatua esaldia ere. Ikasia nuela zirudien, gidoi baten parte zela eta publikoa hunkitu nahian nembilela.

Asko luzatu zen solasaldia. Gai batek beste gai batera eramaten gintuen eta azkenean irteerarik gabeko labirinto bihurtu zen gure jarduna.

—Independizatuko al da Katalunia?

—Eta Euskal Herria? Independizatuko gara gu?

—Auskalo!

—Ez digute askatasunik ematen espainiar madarikatu horiek.

—Madarikatu, ja, ja. Noizbait katutxo bat izaten badut, Madari jarriko diot izena. Madari katua izango da.

—Nik txakur bat nahi dut.

—Ba nik nobio bat. Maitasuna zer den jakiteko. Maitatzea eta maitatua izatea. Asko eskatzea da? Nire kasuan bai, ezta?

—Zuk ez al duzu ba printze urdinaren bisitarik merezi?

Bisita? "Eso suena a tía abuela con bizcocho" kexatu zen ene Pepito Grillo edo dena delakoa. Barneko ahotsa.

Maitemintzeak lerdotzea dakar. Itsutzea. Baina probatzeko gogoz nengoen. Denok bilatzen dugu bizitzako liburuan amodiozko kapituluren bat idazten lagunduko digun norbait. Ez al nuen nik horretarako eskubiderik? Hegorik gabe hegan egiteko. Amets amaigabe batean bezala sentitzeko, ezer ez bada ere betiko.

—Hilabete pare batekin konformatzen naiz.

—Zu eta zure konformatzeak.

Ostiral eguzkitsua ekainaren 12a. Julen ospitalera joan zen. Aurreko astean egin zizkioten proba batzuen emaitzen bila. Azkenaldian buruko minak izaten zituen. Eta zorabioak. Beldurtzen hasiak ginen. Baina ekarri zizkigun berriak onak ziren. Ez kezkatzeko esan omen zion medikuak. Nekearen ondorio izango zela guztia. Edo estresarena. Lasai egoteko. Eguraldia nahiko tonto zebilela eta bero haiek ez zirela normalak. Horregatik zegoela agian ahulago.

Ahultasuna aitzakiatzat hartuta, Julenek lagun bati eman zion ez dakit nongo festetan Gatiburen kontzerturako *for free* lortu zuen sarrera. *For free*, bai, ingelesez. Dohainik ez zen hain *guaya* lehengusuarentzat. Eta "for free" esaten zuen bakoitzean izebak "for, fri, txu, wan, letz gou" erantzuten zion. A ze para!

—Zu ez al zoaz kontzertura?

—Ez.

—Buruko mina duzulako?

—Ez, ondo nago.

—Orduan...? Beno, lasai, gu ere hemen geldituko gara.

—Ez al zaudete Teresarekin geratuta?

—Bai, baina...

—Zuek egin zuen plana.

—A, badakit, Teresari hona etortzeko esango diot.

—Ez, Gurutze, utzi ni bakean.

Bakean. Bakardadean. Beharrezkoa da batzuetan. Deskonektatzeko. Deskantsatzeko. Tabernaz taberna ibili ginen Guru, Tere eta hirurok.

Hurrengo egunean lazo gorri batekin apaindutako kaxa txiki bat ikusi nuen nire laranja-zukuaren ondoan.

—Eta hau?

—Zuretzat da.

—Apirilekoa naiz ni, Julen.

—Bai, Aries, baietz? Eta ni Leo. Gure alde daude astroak.

Astroak? Eskerrak ez zuen hortik jarraitu. Telebistako programa beldurgarri bateko pitonisa txoro bat ekarri zidan gogora eta ez zitzaidan gustatu. Gorroto ditut pantailaren beste aldetik jendea engainatzen aritzen diren sorgin turbantedun horiek.

Kaxa hartu eta bertan marraztu zituen loretxoak erakutsi zizkidan. “Irekiko dugu?”. Larruzko lepoko beltz bat zen, eta zilarrezko bihotz bat zuen.

—O, ze polita! Mila esker, onena zara.

—Jarriko dizut?

—Bai.

Mertxeren alabak ere lepoan lotuta darama bihotza. Beno, berea ez da bihotz bat, bihotz erdi bat da. Beste erdia mutil-lagunari oparitu zion. Nik nahiago dut osoa, politagoa da. Gainera bihotz erdi batek ez du bihotz erdi bat ematen, belarri bat ematen du.

—Oso ondo geratzen zaizu.

—Orduan ez dut kenduko.

—Manu, maite zaitut.

—Baita nik zu ere, *xo/ete*.

—Bai, baina ez duzula ulertu uste dut. Gogoratzen printze urdina?

Margo bat atera zuen poltsikotik. Bere eskuin-masaila urdintzeari ekin zion.

—Aurrean daukazu. Eta bere zeru-koloreak ostadartzat zaitu. Nire nobioa izan nahi duzu?

Txantxetan ari zela pentsatu nuen.

—Baina zuri ez al zaizkizu neskak gustatzen?

—Zu zara bisexualitatean sinesten ez duena.

Pixka bat gehiago hurbildu zen nigana. Gertu egotetik gertuago egora pasa zen. Gertuago egotetik gertuegi egotera gero. Berak izozkia nahi zuenetan izozkia jaten zuela esan zidan. Eta poliki-poliki, xuabe-xuabe, pelikula erromantikoenetan bezala muxukatu ninduen. Ziur nago sentitu nuena azaltzeko gai diren hitzak ere badaudela, existitzen direla. Niri ezinezkoa zait.

Blokeatuta nengoen. Harrizko bilakatuta. Kostatu egin zitzaidan erreakzionatzea. Baina, erreakzionatu nuenean, pasioz eta desioz bete nintzen ehuneko ehunean. Erromantizismotik erotismora bidaiatu genuen sutsuki.

—Eta...? Izan nahi duzu?

—Bai.

Hori da nire amodiozko kapituluaren hasiera. Lagun on baten antzezlan bikain batena.

Telefono-hotsak iratzarri ninduen abuztuaren 14an. Ospitaletik deitu zuten. Han zegoen Julen. Bai? Jiratu egin nintzen. Zertarako? Nire alboan jarraitzen zuen ala ez ikusteko. Zergatik? Ez dakit. Ez du zentzurik. Ospitalean zegoela esan bazuten ospitalean zegoelako izango zen, eta ospitalean bazegoen nirekin ez zegoen. Jaiki, jantzi eta hara abiatu ginen izeba-ilobak.

—Operatzea erabaki du.

—Operatu?

Medikuak bazekien Julenek egia ezkutatu zigula.

—Zuei kontatzera zihoan eskaileretan erori eta konortea galdu duenean. Oraindik ez da bere onera itzuli.

—Non dago!? Zer kontatu behar zigun!?

—Argi hitz egingo dizuet. Tumore bat dauka buruan. Operazioa oso da delikatu eta ebakuntza-gelatik bizirik aterako den ezin dezakegu jakin. Saiatuko gara, ahalik eta ongien beteko dugu gure lana. Senda daiteke, baina zer zuen azaldu genionetik denbora asko pasa da eta larriagotu egin zaigu egoera.

—Zenbat denbora da asko, Julen!? —egin nion oihu 209. gelan sartzen utzi zigutenean— Noiztik ari zara hiltzen!?

Bi hilabete. Bi hilabetetan gezur batean bizi izan nintzen. Lerdotuta. Itsututa. Baina pozik. Dena zen Julenen konpainian ederragoa.

Behin, esnatu nintzenean, ohe ertzean eserita aurkitu nuen. Txintxo-txintxo zegoen. Geldirik. Halaxe irudikatzen nituen txikitan amonak gauero errepikarazten zidan otoitz hartako aingeruak. "Cuatro esquinitas tiene mi cama, cuatro angelitos que me la guardan". Egun onak ematera nindoala hasi

ziren nire aingerutxoaren sorbaldak dantzan. Nondik zetorren ez nekien soinu baten erritmoan. Gero konturatu nintzen, negarrez ari zen. Begiak itxi nituen berriro. Pentsatzeko. Bai, begiak irekita ere pentsatu daiteke, baina ez nuen zer egin erabaki aurretik Julenek burua jiratu eta esna nengoela ohartzerik nahi.

Lo plantak eginez ez nioke intimitatea bizkarrean ispilu bailitzan puskatuko. Anima zezakeen hitzik ahoskatu gabe ez nintzateke lasai geratuko. Begiak ireki nituen berriro.

—Julen, zer gertatzen zaizu?

Bat-batean, isiltasuna. Intimitatearen kristal apurtuen ondorioz itzuli zen lehengora. Bukatu zen sorbalda-dantza.

—Ezin zoriontsuagoa naiz, Manu. Elkarrekin gaude eta gure arteko hau hain da magikoa... Betidanik zaitut gustuko.

—Betidanik? —galdetu nion ongi entzun nuela jakinda (hori esan nahi ote zuen zalantzan jarrita).

—Betidanik eta betirako —erantzun zidan.

Eta ondoan etzan zen ni muxuka jateko. Laztanen goxotasunean malkoen gazia dastatu nuen bere ezpainetan.

“Itsaso-zaporea du maitasunak hain benetakoa denean” xuxurlatu zuen ene Pepito Grillo edo dena delako barneko ahotsak.

Sorgin turbantedun horiek bezala engainatu ninduen printze urdinak. Haren heriotza izan zen kolperik handiena. Lainorik txurienak ere ilundu zituena.